


**EUSKALTZAINDIAK EUSKAL IZENDEGIA / PONTE IZENDEGIA /  
DICCIONARIO DE NOMBRES DE PILA / DICTIONNAIRE  
DES PRÉNOMS AURKEZTEN DU**

*Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan,  
2001eko irailaren 14an eta  
Iruñean, 2001eko urriaren 5ean*

Euskaltzaindiak, Onomastika batzordeak Eusko Jaurlaritzaren Justizia saileko babesarekin egindako *Euskal Izendegia / Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms* aurkezten du.

\* \* \*

La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia presenta el *Euskal Izendegia / Ponte Izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms* realizado por su comisión de Onomástica con el patrocinio de la Consejería de Justicia del Gobierno Vasco.





## EUSKAL IZENDEGIA

Bilbo, egoitza, 2001-IX-14

H. Knörr,  
euskaltzainburuordea,  
Onomastika batzordeburu ohia

Euskal ponte-izenen, lehengoen eta oraingoen, zerrenda oparoa eskaintzen du liburu honek, izen bakoitzaz argibide laburrarekin. Helburua hau da, batez ere: seme-alaba sorberri edo bidean direnentzat izen egoki bila dabiltzan gurasoak laguntzea, edota izen emana aldatu edo idazkera zuzendu nahi dutenak argitzea.

Izen hauek biltzean oraindainoko izendegiak aztertu ditugu, oroz gain Jose M. Satrustegiren merezimendu handiko lanaren uzta. Euskaltzaindiaren aginduz nafar euskaltzainak 1972an argitaratu zuen lehendabizikoz *Nomenclátor onomástico vasco / Euskal Izendegia*, La Vasconia bankuaren babespean. Lege-zirrikitu batzuk irekiak ziren garai hartan eta larria zen jendearen eskaria, sei urte lehenago (1966an) agertua zen *Nomenclátor euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindiak onartutako euskal izenlerroa* zeritzan liburuxkak ase ezin zuena.

Orain plazaratzen dugun liburuan beste ehunka izen sartu dira orobat, garai batean edo bestean lekukotasuna dutenak, bai eta Euskaltzaindiak onarturiko santutegia ere. Horrez gain, irakurleak azken urteotako proposamenak atzemango ditu, are berriak, ermita, mendi eta abarren izenak. Euskal idazle-en zenbait izenek –benetako nahiz ezizenek– osatzen dute zerrenda. Horrenbestez erabiltzaileak izenen aukera zabala edirengo du, zalantzarik gabe, hementxoak eta hangoak, zein bere argibidearekin.

Zerrenda ontzean gogoan izan ditugu aldioro hizkuntzaren aldetikako egokitasuna, izen-eramaileari zor zaion duintasuna eta beharrezkoa den sexu bereizketa. Baldintza hauetatik azken biak indarrean dagoen Espainiako legeak espresuki aipatzen ditu. Baldintza horiez landa, izendegi honetan kontuan eduki dugu legeriak izena hautatzeko gurasoei –edota adinetara helduei– ematen dien askatasuna. Askatasun horrek, jakina, informazio aski izatea eskatzen du, halako moduz non izen desegokiak ezartzea saihests baitaiteke.

Herriaren interes biziarengatik, euskal izendegi batzuk argitaratu dira azken urteotan. Baliteke egileek borondate ona izatea, baina maiz zentzugabeko izenak hedatu dituzte zoritxarrez, hala nola Jose M. Bereciartuaren *Catálogo de nombres vascos* deritzanean (1977) ageri zen *Eztizen*, gaztelaniazko “Dulce Nombre (de María)” delakoaren balizko ordaina, euskal hitz ordenari muzin eginik (izatekotan: *Izenezti*). Beste izen batzuetan garbi dago laborategiko kutsua, adibidez, *Jazki*. Deitoragarria da halaber zenbait elkarte euskaltzalek, hala nola Seaskak (grafia hori ez da zuzena: *Sehaska* behar da), batere irizpiderik gabeko zerrendak barriatu izana. Irizpiderik eza hori agerian da orobat harrera handia izan omen duen Xarles Bidegainen *Izendegia / Diccionario de nombres vascos / Dictionnaire de prénoms basques* liburuan (Baiona 1999). Egileak forma arruntak eta txikigarriak nahasten ditu (pentsa dezagun zer geratuko litzatekeen gaztelaniazko izendegi batean *Pepote* edo *Rosita* bezalako formak sistematikoki proposatuko balira), ez da sexu bereizketaz axolatzen eta toki- eta giza izenez Euskaltzaindiak eman arauak ez ditu errespetatzen. Liburu horren iruzkin laburra argitaratu berri da *Euskera*-n, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean (44:2, 1999, 1.207-1.210).

Ez dagokio Onomastika batzordeari guztiz izen ezagunen, baina iturri zailantzakoen kontra kanpainak antolatzea. Kasu horretan dago Sabino Arana eta Luis Eleizalderen santutegia (1910), haste-hastetik hain eztabaidagai geratu zena. Edozeinek daki santutegi horretako izen batzuk, adibidez *Miren*, *Iñaki*, eta abar, arrakastatsuak izan direla, gainerako gehien-gehienak baztertuak gelditu direlarik. Gure izendegi honetan erabiltzen diren izen horiek sartu ditugu, zein bere oharrarekin, besteak bezala. Halaber Aranaren sorkaria den emakumezkoen *-e*, *-ne*, *-ñe* bukaerari dagokiola (adibidez, *Errose*, *Bakarne*, *Garbiñe*), hau izan da gure irizpide garbia: beste izen batzuetara ez zabaltzea. Horregatik hobesten dugu *Joana*, *Joane* baino, eta, zer esanik ez, ez deritzegu onargarri *Begoñe* bezalako asmakizunei, Bizkaiko elizate den *Begoña* jatorren ordez.

Europako Herri zaharra da gurea, eta Telesforo Aranzadik arrazoi osoz idatzi zuen gisan, kontinente horretan euskaldunak “ez dira inola ere osagai arrotza”. Orrialde hauetan aurkitzen diren izenak mendeetako iraganaren isla dira. Isla horretan nabaria da judu-kristau eta greziar-erromatar tradizioa, gure ondareko izenen aldamenean —eta ondareko izen hauetako askotan garbi dago Mendebaldeko beste herrietariko parekotasuna, demagun, *Otsoa* eta *Lope*, eta abar—. Denbora berean, irekia agertzen da zerrenda, gure gizartearen joera berriei.

## **EUSKAL IZENDEGIA: EUSKARA NORMALIZATZEKO TRESNA GARRANTZITSUA**

### **Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko lankidetzaren emaitzak**

*A. Iztueta Azkue,  
Justizia Lan eta Gizarte Gaietako Sailburua*

Eguerdion guztioi:

Ohorea, atsegina da niretzat, sailburu gisa prentsa-aurrean agertzen naizen aurreneko aldia euskara bultzatzeko ekitaldi batean izatea, eta, are gehiago, EUSKALTZAINDIAREkin batera egitea, gure Euskararen Akademia mai-tearen eskutik, hain zuzen.

Gaur aurkezten dugun *Euskal Izendegiaren* beharra genuen, haren esperoan geunden; lanabes praktiko eta eragingarria baita gure herritarrentzat eta gure Herriaren Justizia Administrazioarentzat. Dúdarik gabe, euskal izendegia tresna garrantzitsua baita gure hizkuntza normalizatzeko, eta 1998an Justizia Sailak egindako deituren izendegia osatu egingo du.

Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko Legeak dioenez, euskara, gure hizkuntza izanik, Euskal Herriaren identitatearen ikur agerikoena eta objektiboena da.

Hala, arlo pribatuan zein publikoan hain oinarrizkoa eta garrantzitsua den kontu batean –gure izen-abizenak eta gure senideenak ezartzean– herritar guztiok euskara erabiltzeko dugun eskubidea oso lagungarria da gure hizkuntza normalizatzeko, hau da, euskara identitate kolektiboaren begi-bistako ikurtzat jo eta gizabanakoa gizartean integratzeko lanabes bezala aitortzeko.

Logika horri jarraiki, aginte publikoen betebeharra da –kasu honetan Justizia Administrazioarena– eskubide hori gauza dadin bermatzea, pixkanaka-pixkanaka bermatu ere.

Izen propioei dagokienez, euskararen normalizazioa iskanbilarik gabeko eta zorioneko errealitatea da.

Hala, beste garai batzuetan ez bezala, gaur egun gurasoek ez dute inolako oztoporik seme-alabentzat euskarazko izenak aukeratzeko.

Era berean, ez dago inolako trabarik pertsona batek, nahi izanez gero, izen euskaldun bat jartzeko, Erregistro Zibilean haren izentzat hartutakoaren orde.

Hori lorpen handia izan bada ere, urrutirago jo behar dugu, aurrerapauso bat gehiago eginez: grafia normalizatu behar dugu, euskal herritarrek eta Erregistro Zibileko arduradunek izenen etimologiaren, jatorriaren, euren benetako esanahiaren berri izan dezaten.

Orain arte, izenak ezartzean eta aldatzean segurtasun juridikoa bermatze eta euskara errespetatze aldera, bataio-izenen grafia euskarara egokitzeko espedienteak eskatzailearen nahia kontuan izanda eta Euskaltzaindiaren aldeko txostena eskatuta ebazten ziren.

Alegia: orain dela gutxi arte, herritar batek bere izenaren euskal grafia aldatu nahi bazuen, Erregistro Zibilean zegokion espedienteari ekiteaz gain, Euskaltzaindiaren ziurtagiria aurkeztu behar zuen, aldaketa zuzena zela egiaztatzeko.

- Euskal Izendegi honen argitalpenaz geroztik, grafia aldaketa izendegi honen babesean egin beharko da.

Horrenbestez, euskal izenak normalizatzea helburu duen argitalpena dugu hau, eta, hala, euskara ofiziala ez zenean beste sistema grafiko batzuek izen horietan egindako aldaketak zuzenduko ditu.

*Euskal izendegia* Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak egindako lan zoragarria da, garrantzitsua euskararentzat, edozein pertsonarentzat eta familiarentzat eta Justizia Administrazioarentzat; beraz, gure esker on osoa merezi duen lana.

Esan bezala, izendegia argitaratzeari esker erraztu egingo da euskal izenak Euskaltzaindiak ezarritako grafiara egin beharreko egokitzapena, esanahia ezagutzea eta euren gaztelerazko eta frantsesezko baliokideak jakitea.

Grafia ezartzeko eta aldatzeko espedienteetan esku hartu behar duten epaileentzat, Karrera Judizialeko kideentzat eta funtzionario publikoentzat, izendegi-hiztegi hau izango da, dudarik gabe, euskal hizkuntzarekiko begirunea eta segurtasun juridikoaren beharra egokituko duen erreferentea.

Zabalkunde ona izan dezan ziurtatzeko, 6.000 ale argitaratu dira, horietatik asko Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Elkarteko Erregistro Zibil guztietara eta bake-epaitegi guztietara bidaliko dira, baita Estatu-ko erregistro zibiletara ere.

Gure Autonomia Estatutuan ezarritako hizkuntzen koofizialtasuna bete dadin zaindu, bultzatu eta ahalegindu behar du Justizia Administrazioak, baita gainerako agintari publikoak ere.

Azken buruan, hizkuntza eskubideak eta euskararen normalizazioa eremu guztietan bermatu behar ditugu, euskara Euskal Herri osoaren ondarea baita.

Ziur nago gaur aurkezten ari garen *Euskal izendegia* tresna baliagarria izango dela, epaitegientzat, erregistro zibilentzat, baita gure gizarte osoarentzat ere.





## **DICCIONARIO DE NOMBRES VASCOS: UN INSTRUMENTO IMPORTANTE PARA LA NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA**

**Fruto de la colaboración entre Euskaltzaindia y el Departamento de Justicia, Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco**

A. Iztueta Azkue,  
Consejera de Justicia, Empleo y Asunto Sociales

Eguedion guztioi:

Para mí es un honor, es un placer comparecer por primera vez en rueda de prensa como consejera en un acto de promoción del euskera y hacerlo, además, de la mano, desde el trabajo y el esfuerzo compartido con EUSKALTZANDIA, nuestra querida Academia de la Lengua Vasca.

El *Euskal Izendegia* que hoy presentamos es un recurso necesario y esperado, una herramienta práctica y eficaz para nuestros ciudadanos/as y para la Administración de Justicia de nuestro País. El *Euskal Izendegia*, es, sin duda, un instrumento importante para la normalización de nuestro idioma y completa el *Nomenclátor de apellidos* que el Departamento de Justicia llevó a cabo en 1998.

La Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera dice que el euskera, como lengua propia, es el signo más visible y objetivo de la identidad del Pueblo Vasco.

Si algo contribuye a la normalización del euskera, a ese reconocimiento del euskera como signo visible de la identidad colectiva e instrumento de integración del individuo en la comunidad, es el derecho de todos los ciudadanos/as a utilizar su lengua en la determinación de algo tan básico e importante en la esfera de lo privado y en la esfera de lo social como es el determinar su nombre y apellidos, el nombre y apellidos de los suyos.

Desde esta lógica, es obligación de los poderes públicos, en este caso de la Administración de Justicia, impulsar y garantizar de forma progresiva el ejercicio de ese derecho.

En lo que atañe a los nombres propios la normalización de la lengua vasca es hoy una pacífica y afortunada realidad.

Al contrario que en tiempos pasados, hoy en día nada impide que los padres y las madres elijan para sus hijos e hijas nombres en euskera.

Tampoco existe traba alguna para que una persona cambie, si lo desea, su nombre, el nombre con el que fue inscrito en el Registro Civil, por otro euskaldún.

Este ha sido un gran logro pero debíamos ir mas lejos, dar un paso más; había que normalizar la grafía y dotar a los ciudadanos vascos, y a los encargados del Registro Civil, de un instrumento que les permita conocer la etimología, el origen de los nombres, su auténtico significado.

Hasta ahora, por seguridad jurídica en la imposición y cambio de nombres así como por respeto a la lengua vasca, los expedientes de adaptación gráfica de los nombres de pila al euskera se resolvían atendiendo al deseo de la persona solicitante y exigiendo un informe favorable de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Es decir, hasta hace poco, cuando un ciudadano/a pretendía modificar la grafía euskaldún de su nombre, además de iniciar el oportuno expediente en el Registro Civil debía aportar un certificado de Euskaltzaindia que acreditara la corrección del cambio.

A partir de esta publicación, de este *Euskal Izendegia*, únicamente será preciso que el cambio de grafía figure amparado por este nomenclátor.

Nos encontramos pues ante una obra que pretende la normalización de los nombres euskéricos, corrigiendo las alteraciones que otros sistemas gráficos introdujeron en ellos al amparo de la no-oficialidad del euskera.

Este *Euskal Izendegia* es un magnífico trabajo, una obra relevante para el euskera, para las personas y familias, para la Administración de Justicia, desarrollada por la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia. Es un trabajo, un esfuerzo merecedor de todo nuestro reconocimiento y felicitación.

Su publicación facilitará la adecuación de los nombres vascos a la grafía fijada por Euskaltzaindia, posibilitará el conocer su significado y sus equivalencias en castellano y francés.

Para los jueces, miembros de la Carrera Fiscal y funcionarios públicos que hayan de intervenir en los expedientes de imposición y cambio de la grafía, este nomenclátor-diccionario constituirá, sin lugar a dudas, el referente que permitirá compaginar la necesidad de seguridad jurídica con el respeto a la lengua vasca.

Para asegurar una buena difusión se han editado 6.000 ejemplares, gran parte de los cuales serán remitidos a todos los Registros Civiles y Juzgados de Paz de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Comunidad Foral de Navarra así como a los Registros Civiles del resto del Estado.

La Administración de Justicia, así como el resto de los poderes públicos, deben velar, impulsar, empeñarse en el cumplimiento de la cooficialidad lingüística consagrada en nuestro Estatuto de Autonomía.

Debemos, en definitiva, asegurar los derechos lingüísticos y la normalización del euskera en todos los ámbitos, ya que el euskera es patrimonio cultural de toda Euskal Herria.

Estoy convencida de que el *Euskal Izendegia* que hoy presentamos será un valioso instrumento tanto para los Juzgados y Registros Civiles como para nuestra sociedad en general.



## EUSKAL IZENDEGIA

M. Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzordeko idazkaria

Egun on.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saileko babesarekin egindako, *Euskal Izendegia / Ponte izendegia / Dictionnaire de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms* aurkezten du.

Liburu apala baina helburu asko ase nahi dituen. Batetik lege munduan aritzen direnek, bereziki Bake Epaitegie eta errolda-lekuetan aritzen direnek, erabiltzeko tresna. Gogoratu behar baitugu Euskaltzaindia dela Euskal Herrian izenak arautzen duen erakunde bakarra, eta ondorioz, liburu hau arau-emailea da. Bestetik, gurasoentzat izen egoki eta jatorrak aukeratzeko tresna, askotan jendea noraezean dabilelako, izena aukeratu nahian eta ez dira gutxi izena aukeratu ondoren erregistrora heldu eta ez dela onargarria jakiten dutenak. Azkenik jende askok ja kin ahal izango du, era fidagarri batean bere izenari buruzko zehaztasunak.

Liburuan Onomastika batzordeak prestatutako izen zerrendak biltzen dira (2.264 izen dira denera bi atal nagusitan banatuak: 834 gizonetzkoenak eta 1.430 emakumezkoenak). Jatorrizko zerrendak Jose Mari Satrustegi euskaltzainak argitaratutako hiru izendegitik atera dira, eta horiei azken ikerketek argitara emandakoak gehitu zaizkio. Bildutako izenak bost azpiataletan bil ditzake: euskal jatorrizko izenak (*Eneko, Andere, Otsanda,...*); Europako tradizioko izenak (*Peru, Monika, Frantsiska,...*); santutegiak, Sabino Arana eta Luis Eleizalde sorturikoak (*Kepa, Miren,...*), eta azken urteotan erabilitako hitz arrunt eta toponimo (*Oihana, Saioa, Ibai,...*).

Aurreko izendegiekin duen alderik handiena izenez egiten den azalpena da: bere jatorria, Euskal Herrian izan duen lekukotasuna eta beste zenbait daturen berri emanez (jai eguna, aldaera onargarriak, txikigarriak...) eta, azkenik, gaztelaniaz eta frantsesez dituen baliokide ohikoenak. Azalpen hauek euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira. Testu egileak Patxi Salaberri, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta nineu izan gara gainontzeko batzordekideen laguntzarekin. Horretaz gain, liburuak hiru sarrera ditu (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatziak hirurok): pertsona izenen historia lana gauzatzeko erabilitako irizpideak azaltzeko eta amaieran legeriaren laburpena eta kidetasun ohikoenak.



## DICCIONARIO DE NOMBRES DE PILA

M. Gorrotxategi Nieto,  
Secretario de la comisión de Onomástica

Buenos días.

La Real Academia de la Lengua Vasca presenta hoy el *Euskal Izendegia / Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms* realizado por su comisión de Onomástica con el patrocinio de la Consejería de Justicia del Gobierno Vasco.

Éste es un libro que en su pequeñez tiene varios objetivos. Por una parte es una herramienta de trabajo para los legisladores y fundamentalmente para los registros civiles y juzgados de paz, ya que la Real Academia de la Lengua Vasca es la única institución competente en los nombres en euskera en Euskal Herria. Por otra parte servirá a los padres a la hora de elegir un nombre apropiado para sus hijos, puesto que no es infrecuente que no sepan dónde consultar, o que una vez elegido un nombre no lo puedan registrar por no ser adecuado, algo que desgraciadamente no es infrecuente. Finalmente sirve a cualquier ciudadano interesado en saber algo de la historia de su nombre.

En el libro se recogen listados de nombres vascos (2.264 en total de los que 834 son de varón y 1.430 de mujer) usando como punto de partida los anteriores nomenclátors realizados por el académico de número Jose Mari Satrustegi. A estos listados originales se han sumado los nombres euskéricos que han sido difundidos en los últimos años. Los nombres los podemos dividir en cinco categorías: nombres tradicionales vascos (*Eneko, Andere, Otsanda,...*); nombres de tradición europea (*Peru, Monika, Frantsiska,...*); advocaciones marianas (*Ainhoa, Leire, Irantzu,...*); nombres creados por Sabino Arana y Luis Eleizalde (*Kepa, Miren,...*) y nombres, comunes o topónimos, usados en los últimos años (*Oihana, Saioa, Ibai,...*).

La mayor innovación respecto a los anteriores nomenclátors es la inclusión de una breve historia del nombre en la que además de su origen y testimonios en el País Vasco se recogen otro tipo de datos (como festividad, variantes reconocidas, hipocorísticos,...) y finalmente los equivalentes castellanos y franceses más habituales. Las explicaciones en cuestión se recogen en euskera y castellano. Los redactores de dichos textos son Patxi Salaberri, profe-

sor de la Universidad Pública de Navarra y yo mismo, con la ayuda de los demás miembros de la comisión. El libro se completa con tres introducciones explicando la historia de los nombres vascos y los criterios de realización del libro así como un apéndice con legislación y tablas de equivalencias euskera-castellano-francés.



## EUSKALTZAINDIAREN EUSKAL IZENDEGIA / PONTE IZENDEGIA-REN AURKEZPENA

*Iruñea, 2001-X-05*

*A. Iñigo,  
Onomastika batzordeburua*

Dakigun bezala, Euskaltzaindiaren helburu nagusia hizkuntza arautzea da. Onomastika arautzeko beharra Akademiaren sorreraren garaiko kezken artean agertzen zaigu eta oraindik garbiago adierazi zuten premia hori, bai Villasantek bai Mitxelenak, euskara batuaren erabakia hartu ondotik.

Kontuan izatekoa da izenak direla gure hizkuntzaren lekukorik zaharrenek (I. eta II. mendeez geroztik agertzen baitira) eta pentsatzekoa, hortaz, euskal onomastikaren harrobia sakona eta emankorra dela. Beharrezkoa zen, bada, gure Herriaren historia luzeko izen ezkutuak modu ofizialean eta grafia egokian argitara ematea.

Hori izan zen, hain zuzen, Euskaltzaindiak, Aingeru Irigarainen *Izenlerroa*-rekin hasiera batean (1966an) eta, orain dela 30 urte inguru, Jose Mari Satrustegik prestatutako *Euskal Izendegia*-rekin abian jarri zuen eginbeharra. Azken lan horren hiru argitalpen egin ziren, 1972an 700en bat izenekin, 1977an 1200en batekin eta 1983an 1800 inguru izenekin. Izendegi horiek izan zuten onarpen eta arrakastaz jabetzeko, aski da hurrengo urteetan izandako aldaketa ikustea. Gizonezko izenetan, garai batean lehendabiziko lekuetan agertzen ziren *José Luis, Francisco Javier, José María, José Antonio* eta abarren ordezkariak *Mikel, Jon, Aitor, Asier*, etab. ditugu orain. Emakumezkoetan, berriz, *María Carmen, Begoña, María Jesús, María Teresa* eta abarren lekuan *Leire, Amaia, Nerea, Ainhoa*, etab. Ezin dugu ahaztu, bestalde, egungo informatika eta hedabideak direla medio, gure ponte izenak Euskal Herriko mugetatik kanpo ere gero eta entzunagoak eta ezagunagoak izateaz gain, pixkanaka-pixkanaka jartzen ere ari direla. Horren lekuko ditugu, erraterako, Euskal Herritik kanpoko zenbait kirolariren euskal izenak, hala nola, *Iker, Gaizka, Arantxa*,...

Aipatutako lanaren azkeneko argitalpenetik, 1983tik gaurdaino alegia, Euskaltzaindiak izen berrien ebazpen multzo ederra eman behar izan du. (Iruñeko ordezkarietan oraindik ere gehien egiten zaizkigun kontsultak izenenak dira.) Euskal gizartea gure Herriaren harrobian dauden hainbat eta hainbat ize-

nen ofizialtasuna etengabe eskatzen ari da eta hori da Onomastika batzordeak, azken urte hauetan, esku artean izan duen gai garrantzitsuenetako bat.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, urte hauetan kaleratu den zenbait izendegik sortu digun kezka larria. Inolako irizpiderik gabe, hots, grafia arauak bete gabe, gizon eta emakume izenak bereizi gabe eta edozein izen hipokoristiko edo txikigarri sartuz argitaratu direnak, jendearengan izugarritzko nahasketa sortuz.

Gaur poz handiz Nafarroan aurkezten dugun *Ponte Izendegi* honetan Onomastika batzordea akats horiek gainditzen saiatu da eta, horretaz gain, izenak indarrean dagoen legeriari egokituak ematen.

2.264 izen dira denera bi atal nagusitan banatuak: 834 gizonezkoenak eta 1.430 emakumezkoenak. Izen horietako bakoitzaren azalpena egiten da: bere jatorria, Euskal Herrian izan duen lekukotasuna eta beste zenbait daturen berri emanez eta, dagokionean, gaztelaniaz eta frantsesez dituen baliokide ohi-koenak adieraziz. Gainera, azalpen osoa euskaraz eta gaztelaniaz ematen da. Testu egileak Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri Zaratiegi batzordekideak izan dira eta azpimarratu beharkeoa da egin duten lan itzela. Horretaz gain, liburuak hiru sarrera ditu, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatziak hirurak:

- a) Henrike Knörr batzordeburu ohiaren hitzaurrea.
- b) Jose Maria Satrustegiren pertsona izenen historia.
- c) Mikel Gorrotxategi batzordeko idazkariak lana gauzatzeko proposatutako irizpideak.

Eta, kontuan izanik gure historia hurbilean euskaldunok euskal izenak jarzkeko izan ditugun zailtasunak, Onomastika batzordeari egoki iruditu zaio liburuaren bukaeran, bibliografiaren aurretik, eranskin gisa sartzea, Hegoaldeko ponte izenen legeria 1957tik gaur eguneraino. (Ondoren Andres Urrutiak, Jagoneko sailburuak azalduko dizkigu legeria horren zehaztasunak).

Eta amaitzeko, gogorarazi nahi dut Euskaltzaindiari ikertzea, irizpenak ematea, proposamenak egitea eta, azken batean, hizkuntza arautzea dagokio. Euskaltzaindiak egiten dituen lanek gizartean eragina izan dezaten, Akademiaren esku ez dauden beste baliabide batzuk beharrezkoak dira. Batetik, lan horiek argitaratzea. Eusko Jaurjaritzako Justizia, Lan eta Gizarte gaietako Sailak jarri dizkigu baliabide horiek, eta berari esker kaleratu da Onomastika batzordeak egindako lan hau. Bestetik, argitalpenak gizarteratzea eta izenak zuzen erabiltzea. Eta helburu hori, gaur ekitaldi honetara gomiatuak izan zareten gehienoi dagokizue: erregistroetako arduradun, bake epaile, euskara teknikari, apez, kazetari eta abarrei. Gure izenak modu zuzenean jarri eta erabiltzen saiatzen bagara, dudarik ez dago gure hizkuntzaren duintasun eta prestigioaren onerako izanen dela eta hori lortzea, azken batean, denon erantzukizuna da.

Zorionak Onomastika batzordekideei eta eskemik asko hona etorri zarteneri, hots, gai honen inguruan interesa agertu duzuen nafar guztioi.

## PRESENTACIÓN DEL *EUSKAL IZENDEGIA* / *DICCIONARIO DE NOMBRES DE PILA DE EUSKALTZAINDIA*

Pamplona, 05-X-2001

A. Iñigo,  
Presidente de la comisión de Onomástica

Como es sabido, el cometido principal de Euskaltzaindia es la normativización del euskera. La necesidad de proceder a la normativización de la Onomástica ha sido una preocupación que la Academia ha tenido desde su creación en 1919 y, en especial, a partir de la decisión de unificar y estandarizar la lengua en 1968, tal como lo recordaron en repetidas ocasiones el que fue presidente Luis Villasante y el lingüista y académico Koldo Mitxelena.

Es preciso recordar que los testimonios escritos más antiguos del euskera son precisamente los nombres de persona, constatados desde los siglos I y II y cabe, por ello, pensar en la gran riqueza onomástica que se atestigua en la larga historia de la lengua de nuestro pueblo (lengua sin reconocimiento oficial hasta estos últimos años). Era, por tanto, preciso, proceder al establecimiento de la forma oficializada y acomodada a la graffa académica de cada uno de los nombres. Esta tarea tuvo su comienzo con la edición, por parte de Euskaltzaindia, de la *Relación de Nombres Vascos* de Aingeru Irigarai en 1966 y de las tres ediciones publicadas entre 1972 y 1983 del *Nomenclátor Onomástico Vasco* preparado por José María Satrustegi.

La prueba más evidente de su aceptación popular es el vuelco espectacular que se ha registrado en los nombres de pila en los años posteriores. En los nombres masculinos, los primeros puestos ocupados hasta entonces por nombres como *José Luis*, *Francisco Javier*, *José María*, *José Antonio* etc. fueron sustituidos por *Mikel*, *Jon*, *Aitor*, *Asier*, etc., y en los femeninos los de *María Carmen*, *Begoña*, *María Jesús*, *María Teresa*, etc. pasaron a ser ocupados por *Leire*, *Amaia*, *Nerea*, *Ainhoa*, etc. Además, es preciso mencionar la expansión de nuestra Onomástica más allá del ámbito territorial vasco –debido sin duda al poder e influencia de los medios de comunicación actuales y a los avances informáticos–. Por ejemplo, en el censo de Madrid de 1999, *Amaia* se contabiliza en 737 casos, *Ainhoa* en 673, *Estibaliz* en 153, *Leire* en 111, etc. Los nombres vascos comienzan, por otra parte, a resultar familiares

en diversos ámbitos fuera del entorno de habla vasca, como es el caso de *Iker*, *Gaizka*, *Arantxa*,... en deportistas de élite.

El último *Nomenclátor* de la Academia fue publicado en 1983 y desde entonces Euskaltzaindia ha tenido que expedir multitud de certificados de nombres atestiguados en diversas épocas o presentes en denominaciones de ermitas, montes y otros accidentes geográficos, etc. Por ejemplo, el mayor número de consultas que se reciben en la delegación de Euskaltzaindia en Pamplona son las referentes a nombres de pila. Por ello, éste ha sido uno de los temas más frecuentemente tratado en las reuniones de la comisión de Onomástica.

No podemos dejar de mencionar la honda preocupación que han causado a esta comisión algunas publicaciones recientes de nombres de pila, por tratarse de trabajos realizados sin criterio alguno, ya que, en muchos casos, los nombres han sido transcritos con grafía incorrecta, en otros no se ha realizado la elemental distinción de nombres masculinos y femeninos (contraviniendo la legislación en vigor), y abundan las formas diminutivas o hipocorísticas, impensables en diccionarios de nombres oficiales de cualquier otra lengua. Imaginemos qué pasaría si de forma sistemática se propusieran en un nomenclátor castellano nombres como *Pepote*, *Chema*, *Rosita* o *Chus*. Por ello, a la comisión de Onomástica le es grato presentar hoy en Navarra esta nueva obra que lleva implícita la corrección de errores semejantes a los mencionados.

El libro comprende 2.264 nombres: 834 masculinos y 1.430 femeninos. A cada nombre acompaña una breve descripción, redactada en euskera y castellano, en la que se incluye su procedencia, el grado de implantación que ha tenido en nuestro ámbito social y otros datos, y, en su caso, sus correspondencias en castellano y francés. Además, la obra viene presentada por tres introducciones, escritas en euskera, castellano y francés:

- a) La primera es el prólogo del libro a cargo de Henrike Knörr, presidente de la comisión desde 1984 hasta febrero del presente año.
- b) La segunda es la historia de los nombres de pila realizada por José María Satrustegi.
- c) La tercera es la exposición de los criterios para la elaboración de este *Diccionario*, propuestos por el secretario de la comisión Mikel Gorrotxategi.

Además, teniendo en cuenta las conocidas dificultades que ha habido en la historia reciente de nuestro pueblo para imponer nombres vascos, a la comisión de Onomástica le ha parecido oportuno incluir, a propuesta de la Sección Tutelar de Euskaltzaindia, un pequeño anexo con la legislación española al respecto desde 1957 hasta la actualidad. (Cuestión que nos aclarará a continuación Andres Urrutia, presidente de dicha Sección).

Y para terminar, quiero recordar que el cometido propio de Euskaltzaindia es, por una parte, investigar, normativizar y emitir los correspondientes dictámenes (lo que en este caso ha correspondido a la comisión de Onomástica); y por otra, promover el uso y la expansión de la lengua y velar por los derechos lingüísticos (que corresponde a la Sección Tutelar de la Academia y, por ello, en este acto a la comisión de Onomástica nos acompaña el presidente de la Sección Tutelar). Pero para que el trabajo de la Academia tenga su repercusión en el ámbito social, es preciso contar con recursos que quedan fuera del alcance de la propia Academia. Me refiero, en primer lugar, a la publicación de los trabajos. En el caso que nos ocupa, ha sido la Consejería de Justicia, Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco quien ha financiado íntegramente la edición, por lo que queremos manifestarle públicamente nuestro agradecimiento. Y, en segundo lugar, a la aplicación correcta en la imposición y uso de los nombres, es decir, a la tarea de normalización, cometido que, en gran parte, recae entre las personas invitadas a este acto: responsables de registros civiles, jueces de paz, sacerdotes, técnicos de euskera de mancomunidades y ayuntamientos, profesionales de los medios de comunicación, etc.

Es indudable que si se consigue el objetivo de imponer nuestros nombres y utilizarlos de forma correcta, habremos logrado respetar nuestro propio patrimonio cultural y dignificar el prestigio de nuestra lengua que, al menos en el campo de la onomástica, tiene cada vez mayor repercusión dentro y fuera de nuestro entorno geográfico.

Felicidades a los miembros de la comisión de Onomástica, especialmente a los redactores del texto Mikel Gorrotxategi y Patxi Salaberri Zaratiegi por el gran trabajo realizado y muchas gracias a todos los asistentes a este acto.



## EUSKALTZAINDIAREN EUSKAL IZENDEGIA / DICCIONARIO DE NOMBRES DE PILA

Iruñea / Pamplona, 05-X-2001

A. Urrutia

Eguerdion guztioi:

Mi compañero Andrés Iñigo, académico de número y delegado de Euskaltzaindia en Nafarroa, me ha dispensado una presentación que agradezco y a la que correspondo, tomando como eje de mi exposición algo que él ha enumerado con soltura y concisión.

Pertenezco, por oficio, como muchos de vosotros, a esa categoría de lo que hoy se llaman “operadores jurídicos”, esto es, los profesionales que se ocupan del manejo de los instrumentos que en nuestra vida ordinaria nos proporcionan esa sensación tan manida hoy, de la “seguridad jurídica”.

¿Qué tiene que ver ese término tan técnico, con la obra que hoy se presenta por Euskaltzaindia en Nafarroa? La respuesta ha de ser rotunda: todo. He aquí una publicación que por fin nos define un catálogo de los nombres de pila euskaldunes, actualiza lo ya realizado por Euskaltzaindia y relanza, al socaire de su aparición, la línea iniciada por Euskaltzaindia con su *Nomenclator de Apellidos Vascos*.

Algunos me objetarán lo anterior, señalándome la vigencia limitada de estos textos a los lugares donde la lengua vasca es oficial. Nada más lejos de la realidad.

Como el académico de número José María Satrustegi indica en su introducción, este *Diccionario de nombres de pila* euskaldun pretende ser algo actual, adaptado a los tiempos en los que ha de ser aplicado y con una proyección más allá incluso de los territorios de lengua vasca, ya que va a ser un referente indiscutible, incluso a nivel español o francés, a la hora de imponer un nombre euskaldun a una persona.

Y esa referencia, gracias al libro que hoy se presenta será uniforme y homogénea, alejada de formulaciones particulares más o menos acertadas, y dotada de un apoyo académico indiscutible, el de Euskaltzaindia, bien sea en Nafarroa, bien en la Comunidad Autónoma Vasca, bien en los territorios franceses de lengua vasca, o en cualquier otro lugar donde el nombre en euskara sea solicitado.

Esto se hace más evidente todavía en el caso del Estado español, donde la cobertura dada a estos nomencladores por la Dirección General de los Registros y del Notariado del Ministerio de Justicia es toda una orientación a seguir por los Registros Civiles.

Mucho se habla entre nosotros de la autonomización de la Justicia. La Justicia tiene su encarnación más inmediata en los Juzgados de Paz, reponsables en gran medida del Registro Civil y encuadrados en su actividad dentro de los Juzgados encargados del Registro Civil, donde el Diccionario que hoy presentamos es, como ya he expuesto, una referencia inexcusable.

Inexcusable, digo, pero no cerrada ni inmóvil, porque este diccionario continúa su marcha, recibiendo nuevas aportaciones en esa comisión de Onomástica de Euskaltzaindia que tan a fondo ha trabajado en esta labor. Un trabajo hecho desde el conocimiento y el convencimiento de que la lengua vasca es una y única, por encima de las realizades político-administrativas en las que hoy vivimos los euskaldunes.

Y he aquí una diferenciación a la que no es ajena la Real Academia de la Lengua Vasca. Reconocimiento de la unidad de la lengua vasca, basado en la pluralidad de aportaciones y respeto por las diferentes realizades político-administrativas que hoy existen en los territorios de lengua vasca: Comunidad Foral de Navarra, Comunidad Autónoma Vasca y territorios de Iparralde.

Hoy, tanto la Comunidad Autónoma Vasca como Nafarroa tienen competencias en materia de Justicia. Hace poco hemos visto a los responsables de ambas comunidades en actuaciones conjuntas junto con otras comunidades autónomas del Estado español en temas que afectan a la organización de la justicia.

Sería de desear que el euskara fuese un elemento de encuentro entre diferentes comunidades autónomas a la hora de estructurar una actuación común en materia de lengua vasca y justicia desde el respeto a la personalidad de cada una de dichas comunidades autónomas.

Desgraciadamente, estamos lejos de ello. Unos y otros se fustigan incesantemente como si la lengua vasca fuera un elemento arrojado sin más, no algo que pertenece al patrimonio cultural de todas las comunidades que gozan de ella. El *Diccionario de nombres de pila* que hoy se presenta intenta ser la prueba de que las instituciones como Euskaltzaindia, alejadas de toda política partidista pueden y deben contribuir a ese cultivo de la lengua vasca desde su perspectiva unitaria, haciendo que la normalización de la lengua vasca sea una realidad social por encima de las diferentes concepciones políticas existentes y un punto de encuentro indiscutible, precisamente entre los que sostienen diferentes opiniones políticas.



## **EUSKAL IZENDEGIA**

*Iruñea / Pamplona, 2001-X-05*

*A. Urrutia*

Euskaraz ere datorkizue Euskaltzaindia nafarrei, euskararen jagole lana baitu zeregin nagusi Euskal Akademiak. Justiziarako lana bera, euskararen normalkuntzarako tresna, eta hiztegi hau pauso berria. Bertara bildu ditu Euskaltzaindiak aurrekoen eskarmentua eta gaurkoen eskabidea.

Gerogarrenean ere, eginkizun du Euskaltzaindiak honelako lanetan aritzea. Eginak ez du eginkizunik. Hala dio erran zaharrak. Gaur egina duguna biharko itxaropena zaigu. Euskarazko teknikariak, Erregistro Zibileko ardura-dunak... guztiok izan beharko duzue horren erabiltzaile.

Lagundu nahi zaituzte Akademiak. Paperean zein internetean hortxe duzue eskura *Hiztegi Berria*. Erabil ezazue franko eta zabal, jakinik, horixe bai, euskara ikur eta etiketen gaintetik dagoela, Euskaltzaindiak berak egon nahi duen modu berean.